

Hezkuntzaren kalitatea erakuntzaren teoriatik

Jaione Apalategi*

1. Gaiari dagokion hiztegia

Hezkuntzaren kalitatea, erakuntzaren teoriatik

- Hezkuntza / Hezkuntza Sistema
- Erakuntza / Antolamendua / Hezkuntza-Erakuntza
- Ikastexea: haur hezkuntzatik unibertsitateraino
- Kalitatea
- Kudea
- Giza-balibidearen kudeaketa
- Enpresa eta proiektua
- Informazio, komunikazio eta inteligentziaren iraultza
- Ezagutzaren gizartea
- Ezagutzaren langileak
- Teknozientzia
- Sarea
- Oinarrizko-ahalmenak
- Ideiak elkarrekin banatu
- Hipertrukaketa
- Pentsamendu sistema
- Pentsamentu estratejikoak
- Harremanak
- Baloreak
- Eraldaketa
- Pertsona
- Iherakia-boterea-kontrola versus aurretiko jarrera sentibera

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

2. Erakuntzaren teoriatik, hezkuntzaren kalitatea aztertzen

Gai hau aukeratzearen arrazoiak, bat baino gehiago izan dira:

1. Azken urte hauetan hezkuntzaren kalitateaz, nola edo ala, asko hitzegin da: azterketak, mintegiak, argitalpenak, saio bereziak etbar. antolatu direlarik.
 2. Mendebaldeko gizarte garaikideetan, gaur egun, “kalitatea” hitza, nonnahi agertzen den hitza da, informazio eta komunikazio sarearen bidetartez, garrantzia handia hartzen duelarik.
 3. Kalitatearen izenean, egiten diren erabilerak eta ezarpen motak kezkatzen gaitu, bere filosofiaren ildotik, desbideratuak iruditzen zaizkigulako.
 4. Hezkuntzaren kalitatea eta ikastetxeen eraginkortasuna, batu nahian, lekuan-lekuko zein nazioarte mailan egiten diren alderaketak (O.C.D.E., 1990; O.C.D.E.-CERI, 1991; Muñoz-Repiso, 1995; Benedito, 1995 Allègre, 2000; Eusko Jaurlaritza, 2001) ezagutzea beste arrazoi bat izan da.
 5. Euskal Herrian diharduten eskola eta irakaskuntza sistemetan duen eragina ikusiteak ere, bultzatu gaitu gai hau sakontzea.
- Jarraian beraz, gure lan eta usteen berri emango dugu.

3. Kalitatea eta hezkuntza: harreman mota eta bilakaera

Kalitatezko hezkuntza lortzearen kezka aspaldikoa da erakundeetan, eta besteetan ez bezala, nazioarteko L.G.E.E.k (Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Erakuntza) mailan, erdaraz, O.C.D.E. (Organización de Cooperación y Desarrollo Económico) bezala ezagutzen dugun horretan. Bere eginahalei jarraiki, mendebaldeko herrialdeetan, kezka honen inguruan, hiru aro bereiztuko ditugu:

a) *Paris, 1984*

Hezkuntzaren derrigorrezko mailetan, gehiengoaren sarbidea lortu ondoren, kalitatea izan zen hurrengo arronka nagusia. Aipatu urtean, Parisen burutu zen hezkuntza ministroen bileran, hezkuntza batzordekideei, espreski eskatu zitzaion, hurrengo urteetan ahalegin bereziak egiteko Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza aroetan kalitatea bermatu zedin. Urrats honi aurre egiteko, ezinbestekoak ikusi ziren:

1. Kalitatea hitza bera, nola ulertu behar zen adostea.
2. Kalitate hori jokuan jartzen duten giltzarriek atzematea.
3. Partaide ziren herrialde bakoitzak, arazoari aurre egiteko eraz, informazioa trukatzea.

b) *1990ko argitalpena*

Enkarguaren fruituak, L.G.E.E.k, 1990an *School and Quality* izeneko liburuan argitaratu eta bilera berri batean eztabaidatu zituen. Lan honek, lehenego aldiz, kalitatekin zerikusia duten oinarrizko arloen azterketa eskeini zuen:

- kalitatea hezkuntzan;
- nahitaezko menpekotasun ekonomiko eta sozialak;
- kalitatea zerena, norentzako; eta
- nola neurtu kalitatea.

Azkenik, kalitatearen azterketarako ezinbesteko osagaiak zeintzu ziren aipatzen zituen ere:

- curriculumak;
- irakasleak;
- eskolaren antolaketa;
- ebaluaketa; eta
- bitarteko materialak, hain zuzen ere.

Baina, **ondorio nagusia** hauxe izan zen: *eskola bera da, kalitatearen aztergai bakarra; bertan batzen direlako osagai guztien arteko eraginak.*

c) *1994ko bilera erabakikorra*

Ondorengo lau urteetako lana, 1990tik 1994artekoa, zehatzagoa izan zen: *eskolen eta hezkuntza bitartekoen kudearen eraginkortasuna*, aztergai hartuz, eta 1994ko hezkuntza ministroen bilerarekin, bukatutzat emango da. Aro honen ezaugarriarik bikainena, *kalitatea, prozesua* bezala ulertu behar zela aitortzea izan zen, ez eta, emaitzaren ondorioa. Prozesu hau, eskolaren osagaien arteko harreman eta funtzionamenduaren ondorioen garapena neurtzea suposatuko luke, nun berriro, lehenik eta behin, zenbait urrats antolatu eta martxan jarri beharko ziren:

1. Hezkuntzaren kalitateari buruzko eremu kontzeptuala definitu, ikerketa enpirikoa egin ahal izateko. Nazioarte mailako jakitunei, kalitatea prozesua bezala neurtzeko, hezkuntzaren *arlo funtzionalak* zeintzu ziren ikertzeko eskatu zitzairen.
2. Helburuak, hezkuntzaren eremua, metodologia eta lanak bukatzeko plazoak bateratu.

Proiektu honen **azken helburua**, *hezkuntza baliabideen erreforma eta politiken kudean, eskolak eta lekuan-lekuko agintek zuten eragina jakitea* zen. Eta ikerketa honetan, parte hartu zuten herriek hauek ditugu: Alemania, Austria, Bretaina Handia, Belgika, Eslovakia Errepublikak, Espainia, Estatu Batuak, Finlandia eta Holanda.

Bibliografian aipatzen dugun bezala, Espainia Estatu mailan Muñoz-Repiso Izaguirre eta taldeak, 1995an, burututako lana, azken fase hone adierazlea da.

d) *Geroztik gaurarte, zer?*

Inteligentziaren, informazioaren eta komunikazioaren iraultza; ezagutzaren gizartea... bezala ezagutzen den garaian bizi gara (Sérieux, 1994:53-66; Sadaba, 2001:26), eta nahi ta nahiez, hezkuntzaren lan-alor guztietan, eragin nabarmena izaten ari da. Iraultza honen sabelean, hezkuntzaren kalitateaz arduratzeak, gure ustez, funtsezko hiru azterketa egitea eskatzen du:

1. Teknikaren hazkunde harrigarriaren eraginak, zientzia orokorrean, zein hezkuntzaren zientziak bereziki, “errentabilitatea”ren bidetik eta ez ezagutzarenetik antolatzeke ahaleginen ingurukoa.
2. Ikerketen ildoak “merkatukeriara” zuzenduagagoak daudela, giza-gizarte eta izadiak eskatzen dituzten aurkikuntzetara baino.
3. Informazioen trataerak bultzatzen duten teknozientzien ugalketa-deigarriak, hezkuntzaren errealiare zabalean, eragin lezaketen kalteak ikertu.

Ikerlariak iragarri bezala, geroz eta mundu konplexuagoa bilakatzen ari zaigun honetan, *gaurko gizartearen zein hezkuntzaren arronkarik garrantzitsuena: informazioa bilatu, aurkitu eta murgiltzeko gaitasuna zein trukatzeko ahalmena menderatzeak dira*. Aldi berean, gizabanakoaren benetako askatasuna, aberastasuna eta burujabetasuna lortzeko irtebide bakarrak.

Bestalde, zera esan nahi da: informazioa, komunikazioa eta teknologiaren natura, trataera eta aldagarritasuna heziketaren giltzarrian bihurtu dela.

Gaurko *ikaslegoaren garapen intelektuala* eta praktikoa, hori garatzean dago, eta kalitatezko hezkuntzaren zeregin nagusia berriz, ikasleengan *ikasteko gaitasuna hezitzea da*. gai eta ahalmen berrien aurrean kuriositatea eta interesa pizten erakutsiz, bizi osorako, benetako ikasketa iraunkorra garatzeko prestatuz (UNESCO, 2001:9-11). Etorkizenerako, hezkuntza eta heziketaren porrota edo arrakasten emen kokatu behar da.

Hala ere, zergatik ote dabil ezagutzaren gizartearen ezaugarri nagusia den inteligentziaren iraultza, ezin indartuz? Arazoa, noski ez da teknologiarena, baizik eta oraindik ere, ohizko erakuntza eta erakundeek: estatu, administrazio, enpresa, hezkuntza sistemek... etbarrek, duten antolaketa piramidalarena, nun egitura horrek ez du uzten sarea bezala funtzionatzen duen egungo gizarteari (Sérieux, 1994: 59) aurre egiten, eta ondorioz ez dira gai, dituzten erantzukizunei erantzuteko.

Iraultza honek behar duen informazioaren eta bere bitartekoen zabalkundea, ezin da eman, boterearen egitura, informazioa eta komunikazioaren harrapaketa eta izkutaketa praktikatzen dutenekin. Izan ere, bere altxor nagusia den informazioaren “hipertrukaketa”, hau da, denen artean banatu daitekeen aberastasuna mugatzen eta baitzen ari delako.

Hezkuntza eta heziketa sistemak ezin dute onartu, iraultza hau frenatzeko, inteligentziaren eta bere tresnariaren neutralizazioan parte hartzea. Eta askotan halaxe ari direla dirudi. Edgar Morinek, frantziar hezkuntzalari ospetsuak, 1991an, hau zion unibertsiatari buruz: *kretinizazioa edo martzukeria, sasi-espezialisten multzoa eta errealtitate zein gizateriarekiko ikuspegi bakarrak antolatutako hezkuntza eta ikerketak bultzatzen*

dituela, espiritu askeen garapena galerariz. Unibertsitatearen inguruan ere, oso interesgarria iruditzen zaigu Alain Tourain soziologo paristarrari, joan den ekainean egin zioten elkarhizketa ezagutzea (Touraine, 2001:8-10).

4. Kantitatetik, kalitateruntz

Nolanahi ere, gizabanako naiz giza ikuspegitik hartuta ere, zaila da egungo bizitzaren aurrean hunkituta ez egotea, edo presiorik ez edukitzea eta aldi berean, une kritikoak bizitzen ari garela ez sentitzea.

Mendebaldeko historiari jarraiki, eta gizarte errentasunetik ikusita, Haurtzaindegitik Unibertsiterainoko hezkuntza-erakunde eta erakuntzen ugaltze eta garapenei so egiten badiegu, alderdi baikor bat atzeman dezakegu, hots: gehiengoaren sarbidea heziketa sisteman, hain zuzen ere. Kantitatearen hazitzeak, bistan da, giza eta gizarteko zenbait arlotan eragin bereziak izan dituela, baita ere, kalitateari aurre egiteko unean. Funtsezkoak aipatuko ditugu.

4.1. Ohizko eremuak

4.1.1. *Hezkuntza eta heziketa sistema*

Haur Hezkuntzatik, Unibertsiterainoko heziketa eremua hartuz gero, ikasleen sarbidea gehitzeak, *konplexutasuna, heterogeneitatea eta aniztasuna* ekarri du hezkuntza eta heziketa sistemen arlo askotara, hara nun eta: eskola-erakinen tokia, tamaina eta beharren egokitzera; ikasleen jatorri ezberdinek zekarren errelitate berriari; taldeketara arazoak; programen taxuketa beharrak; hizkuntzen trataera; publiko-pribatuaren eztabaida; ikasketa berriak martxan jarri beharra...; eta batzutan aldagai guzti hauei, ezagutza eta jakintzaren garapenaren ildotik erantzungo zaie, baina beste askotan, erreibindikazioen eskutik ezarritakoak izango dira. Adibidez, ikasketa berdinak, Unibertsitatearen kokapenaren arabera, kategoria ezberdina izango dute (Carrasco, 1996); gauza bera pasatu daitekalarik ikasketa ez-unibertsitarioekin.

4.1.2. *Azpiegitura*

Hezkuntza-botere publikoak zailtasun nabariak ditu aipaturiko ugaltzeak eskatzen dituzten azpiegituren finantziazioa bermatzeko. Baina erizpide ekonomikoak baldintzatzaile bakar bezala agertzen dira, askotan, eta gure ustez, bereziki zailtzen duena gehiengoaren sarbidea hezkuntza sisteman, ez da aipatu erizpidea, baizik eta geroz eta gizarte zorrotzagoak ditugunetatik, hezkuntzaren diseinu eta ebaluaketa egiteko orduan eskatzen diren, kalitatezko serbitzuak izateak eta indarrean dauden azpiegituren egokitze-ezaren artean sortzen diren desorekak dira.

4.1.3. *Irakaslegoa eta hezitzaileek*

Bien arteko zerikusia eta harreman mota, hezkuntza eta ikastetxearen *kudea kulturari* baldintzaturik dago.

Oraindik ere, uste dugu, kultura horren izatean baino, erabilera desegokian egon daitekela okerra. Izan ere, besteak beste, ikastetxeen kultura premiak aldatzen joaten dira, eta errealitate honi erantzutea oso garrantzitsua da irakaslego eta hezitzaileek duten erantzukizunari egoki erantzun ahal izateko. Ikastetxeen arteko lehiaketa, gehienbat, oraindik ere, ikasketa-errendimenduaren alderaketan oinarrituz egiten bada, ez da jakingo benetan, irakasleek erakusten eta ikasleek ikasten duenaren kalitatea zenbateraino den ona edo txarra.

4.1.4. *Ikasketa-sistema*

Gizarteak hezkuntzari, bizitzarako eta lanerako baliogarriak diren *oinarrizko ahalmenetan presta* dezala ikaslea eskatzen dio.

Inoiz ez bezala, gizarte, ekonomia eta informazio-komunikazioen teknologien hedapenek daramaten ziztu biziek, eragin ugari sortzen ditu gizabanakoengan. Hezkuntza-erakunde eta erakuntzetatik, edozein adinetako ikasleen heziketaz arduratzeak, “oinarrizko ahalmenak” lantzea eskatzen du.

4.1.5. *Hezkuntza-elkartea*

Hezkuntza eta heziketaren kalitateaz arduratzea, hezkuntza erakunde batek duen egitasmoa edo proiektuaz arduratzea eskatzen du: zer den, nortzuk burutzen duten eta nola garatu behar den ulertzean datza. Hezkuntzaren errealitatea, guk geuk “erakuntza sistemikoaren eredia” aztertzerakoan agertzen genuen antzera hartuta (Apalategi, 1994), ikasketen kalitatea ez da ikasketen errendimendua zuzen zuzenean eta denen gainetik aztertzea. Argi dago, ikastetxe bateko hezkuntza-elkartea, ustezko nahikotasunaren errendimendua adostu behar duela, baina horrek berak ondorio honak emateko, ikastetxearen barne-lehiaketa-egiturala eta trukaturia bultzatzea funtsezkoa dira, hezkuntza elkarte osoaren ardura bizian oinarrituz.

Guzti honen muinean, erakuntza bateko proiektuan parte hartzen dutenen arteko *harreman eta komunikazioaren* trataera berri bat dago, albora utzi behar direlarik, beste garai bateko baloreak zituzten trataerak: *iberarkia, boterea, kontrola... etbar*. bezalakoak. Orain, erakuntza baten arrakasta, pertsonaren izatea berrikastean oinarritzen da. Gizabanakoak, norberaren bizitza pribatuan, egunerokotasuna antolatzeke eta dastatzeko erabiltzen dituen baloreak dira, nahi ta nahiez, ezagutu eta kontutan hartu behar ditugunak, ondoren balio guzti horiek, eta berberak, erakuntza jakin bateko egitasmoaren giltzarriekin bat eginez, nun helmuga, partaide guztiengan satisfazio-giroa lortzea den. Denok gera berekoiak neurri batean, baina denok atsegin

dugu eroso eta arro egotea egiten dugunagatik. Balio hau oso humanoa da eta beraz oso kontutan hartu beharrekoa talde-mailako edozein proiektuetan.

Pertsonak daukan alde baikorra kontutan hartzean dago, orekatsu hazitzearen erantzuna. Edonork esan dezake, dioguna ezinezkoa dela, erakuntza guztietan, beti daudela baten batzuk horren aurka egongo direnak... Baina gure ustez, beste hau gogoratu behar da: gutxi direla askatasunaren eta arduraren erabilera txarra egiten dutenak,... zergatik horien bildurrez ibili beti? Erakuntzetan, pertsona baikorren kopurua, beti, ezkorrena baina altuagoa izaten da. Eta egia da, ohiko boterearen iherkiatik jarrera zitala dutenek kontrolatzeko erabili ditezkeen neurriak indarrean jartzeko baina, askoz ere, ordu gehiago sartu behar direla gehiengo baikorrek komunikazioa lortu eta eten ez dadin. Azken baitan ondorioa erabat aldekoa da guztientzat, izan ere, gehiengo baikorrak barneratzen duten satisfakzioak, gutxiengo ezkorrengan ere eragina duelako.

Goiko aginte, buruzagitza eta arduradun “klasiko”en ordeztu, gaur egun, lana elkarrekin banatuzetik dator proiektuen arrakasta eta etekina, baita ere, parte hartzaileen poztasuna edo asetasuna. Beste aztergai bat izango da, nola “lideratu” proiektu hauek (Apalategi, 2000 b).

4.2. Paradigma berriaren ardatza

Azken hamarkadan egokitzapen sakonak egin dituzten erakuntzetan (Saratxaga, 2001) **giza-ahalmene**n etengabeko berrikuspenean oinarritzen direla esan dezakegu. Eraldaketa, pertsonak askatasuna eta ardurarekiko dugun ideia aztertu eta proiektuan kokatzetik etorri da, hain zuzen ere. Bizitza partikulara eta lanaren arteko lotura sinbiosizatu egin behar da, ala, erakuntzek dituzten proiektuak errealak bihurtzeko bakarrak pertsonak direla onartu ondoren, hurrengo pausoa proiektuetik, erdi-erdiean pertsonak jartzea da, eta ez aktiboak edo ondasun materialak bezala ulertuta..., baizik eta pertsonak bezala, eta honek zera esan nahi du, proiektuetan oinarritzen diren erakuntzak, gutxi ez-bezala hezkuntza-erakuntzak, bertan parte hartuko duten pertsona guztiak **emozionalki prestatu** behar dituela. Helburu nagusia, partaide guztiek proiektuarekiko *ongi sentitzea* lortzea da: trebe, aske, arduratsu eta bere buruaren jabe egokitzen zaiona burutzerakoan, ondorioz berak egiten duenaren bidez besteengan sentsazio hori sortzeko gai izango delarik.

Pertsona bat “egile” hutsa bezala ikusten badugu, bere funtzio mekanikoaren ondorioa besterik ez dugu jasoko, aldeztu, diogun moduan lan egin ezker, bere burmuina ere konpartitu ahal izango dugu, bere lana zein besteena hobetzea lortuz. Pertsona bat proiektuarekiko emozionalki prestatzen badugu, bere ahalmena mugagabea bihurtuko da.

Prestateta hau ez da egun pare batean jaso daitekeen zerbait. Askotariko lana egin behar da, bilera ugari, lantaldeak antolatu, hitzordu pila... eta barne-barnetik zein etsitsian, partaide guztiek, proiektuaren etekinaren irabaziak eta etorkizunari aurreegiteko erarik hoberena, elkarharremana eta komunikazioan oinarritzea dela sinistean dago.

Egoera hoberenean, pertsonak ez dira atxikitu behar proiektuetara ondorio zehatz bat lortzeagatik: statusa, dirua, oporrak, lan-orduak, lekua, hurbiltasun fisikoa... etab. baizik eta proiektuengatik.

Arro eta bikain sentitzea nahi dugu denok egiten dugunarekin. Hau lortzeko, ohiko "lantoki" eta "lana" ren izatea eraldatu behar dira.

Bokazioa edota jarrera baikorrak, gogo-txarra edo derrigortasuna baina lagungarriagoak dira, dioguna lortzeko.

Egoera berrietara egokitzeko, besteenganako eta agintearenganako jasapena izatea, talde lana eta arriskuekiko ardura ahalmenak garatzea,... besteak beste, hezkuntza eta heziketaren bidez lortu daitezken gaitasun pertsonalen artean garrantzitsuak direla ikusten badira ere, denetan garrantzitsuena, gizabankoarengan etengabe eta iraunkorki ikasteko gaitasuna ahalbidetzea dela sinesten dugu.

Irakasle askorentzako oso zaila gertatzen da trebetasun hau kinagartzea edo eragitea, baina hain saietsezina ikusten denez, Europear Elkarteetako Hezkuntza Batzordeak berak ere, 2001ko urtarrilaren 31an "Hezkuntza Sistemaren etorkizuneko helburu zehatzak" izeneko txostenean dio: *datarren urteetako irakasle goen heziketa eta ikerketa pedagogikoen ildo nagusiak, etengabeko gizarte eraldagarri honetan irakasle goak ikasleengan ikasteko grina nola txertatu ahalbidetzen saiatu behar dela, beste zeregin guztien gainetik.*

Gehienetan, irakasle goaren lana, haserako naiz heziketa iraunkorra bera, hezkuntza sistemek agindutako edukien igorpen hutsean murgildu ohi da, nola edo hala, alde batera utziz, irakasle goaren ahalmen-pertsonalen trebetasunen heziketa. Egungo ezagutzaren gizarteak berriz, berebiziko baldintza, etorkizunaren ezaugarriak begibistatik galdu gabe, ahalmen horien aldieroko berrikuspenean datza.

Azterketa estrategiko batetik ikusita, kalitatearen ezarpena, gizartearen aurrerapena neurtzeko tresna bezala agertzen da, baina jokuan dagoena zera da: kalitatearen izenean hain gardenak ez diren proiektu eta ebaluaketa prozesuak martxan jartzen direla, kalitatea aitzakia bezala hartuz.

5. Hezkuntza-Erakuntzen kalitatea, paradigma berriaren aurrean

- Askotariko pentsamendua.
- Zentzumenaren iparra.
- Sareak eta bitartekariak.
- Ingurunea.
- Balore berriak.

Duela gutxi hasi dugun mende berriak, erakuntzaren bilakaeratik hartuta nabarmentzen jaso duen lekukorik aipagarriena, zera da: hezkuntza, heziketa-sistema bera eta ikastetxe guztietan "krisia eta kalitatea" hitzak barra-barra erabiltzen direla. Bi hitzak, bata bestearen aurkakoak eman arren, ahideak dira, elkarmenpeko dira, izan ere, nolabaiteko haustura gabe, ez dago hobekuntzarik, ezta ere eraldaketa desiraga-

rririk aldaketa sakonik gabe (Séricy, 1997:125-161; Allegre, 2000:161-209; Saratxaga, 2001:10-17).

- Egun, edonon entzuten ditugun eztabaida gaiak genituzke hauek:
- hezkuntza formalaren eta erakunde hauen zeregina XXI. mendean;
 - hezkuntza, erakunde-elkarte aldaketa eta merkatuaren artean;
 - hezkuntza publikoa eta pribatua;
 - heziketaren krisia eta berrikuntza;
 - ikasleen entzuteki eta eskuhartzea berriak;
 - unibertsitatearen ondoeza;
 - irakaskuntza-praktika eta ikerketen arteko erronka;
 - didaktikaren aldagai nahasiak;
 - irakaslearen heziketa eta garapen profesionalerako mugari berriak;
 - (...)

Gure oraingo asmoa ez da eztabaidagai guzti horien atzetik dagoen kalitatearen arrobia sistematikoki nolakoa den agertzea, baizik eta hezkuntza zientifikoki eta kulturalki garatzeko ardura dutenentzat, hezkuntzaren etorkizun hurbiletik, hezkuntza-erakuntza zientziaren ikuspegia erabiliz, lekuan-lekuko kalitatearen beharrei erantzuteko nahi ta nahiezkoa den azterketa kritikorako tresna baliogarria eskeintzea.

Hezkuntza, heziketa eta ikastetxeen kalitatea nola garatu eta neurtzen den ezagutzeko, alde batetik erakuntza zientifikoa, bere teoria eta ereduak, eta bestetik hezkuntzaren errealitate osoa, kulturalki eta teknologikoki, ikuskera eta aztermailak ezagutu behar dira. Berriki argitaratu dugun Hezkuntza-Erakuntza I: oinarri teorikoak liburuan (Apalategi, 2000; Iztueta, 2001) hortaz aritu gara, hiru atalen barrena:

Hezkuntza-Erakuntzaren adigai nundik nora sortu eta garatu den jakiteko, hezkuntza erakunde eta gizartearen artean jasandako historia zein enpresa-erakuntza zientifikoa izandako gorabeherak ezagutaraztea eman ditugu.

Bigarren atalean, Hezkuntza-Erakuntza zientziaren eraiketa prozesua nolakoa den azaltzen dugu, beste edozein zientziaren antzera, bere teoria eta ikerketa proiektuen bidez eguneratzen saiatzen dela frogatuz.

Azkenik, zati sakonena edozein zientziak ezinbestekoa duen alderaketa analisia egitarakoan nazioarteko ikuspegitik, garaian-garaiko teorien arabera bereizten diren paradigma, eredu eta metaforen sailkapena eskeini dugu.

Ekonomilari askok bezala, guk ere sinisten dugu, gizartearen hazkunde eta garapenaren kalitatea ziurtatzeko baldintza nagusia, giza ondarea bera dela. Baina kalitatea ez da bakarrik, gizarte edo aberriaren zentzu globalean har daiteken zerbait, baizik eta edozein erakuntza mota edo lantaldek eskuartearen dituzten prozesuek eskatzen dizkien baldintza bera da.

Zenbat eta kulturalki eta teknologikoki konplexuagoak izan gizarteek zein erakuntzek orduan eta saietsezinagoa bilakatzen da kalitatearen auzia, globala eta partikularra bihurtzen delarik aldiberean.

Indarrean dagoen azterketa ekomikoaren ikuspetik, erakuntzen inguruan egiten diren azterketa aurrerakoienak uste duten bezala, giza ondarea berez garrantzitsua

izan arren jokuan egoten dena beste hau izaten da: giza-multzoek eurek, kalitateari buruz dituzten usteek. (Sérieyx, 1994).

Hezkuntza-Erakuntza zientziaren ikuspegitik hartuta (Apalatgi, 2000: 11), gizar-teen goi hezkuntza egituretatik hasi eta ikastetxeetarainoko bidean, hezkuntzari kalitatea eskatzeko orduan, garain-garaiko hezkuntza-profesionalek osatzen duten giza-multzoa da lehenik aintzakoz hartu behar den errealitatea, ondoren, kalitateari buruz duten nozioa. Izan ere, belaunaldi berriek zein aberriek orohar, honen arabera erabakiko dute heziketaren baliogarritasuna. Hezkuntza lanetan ari direnen nozioaren baitan dago ere kalitatea lortzea, hau da, ideï (berriak-zaharkituak, atzerakoiak-aurre-rakoak, hobegoak-txarragoak), ondasun (kultura zentzuan) eta serbitzuen (eskaera-eskaintza eztabaida muturrak, hezkuntzaren zereginetatik, zientifikoki argudiatuz, eta ez arrunkerï edo ideologi hutsetatik, egokitzeko parada) ekoizpenen prozesuetan, hain zuzen ere, gizabanako eta giza-talde mailetan, duten kontribuzioaren kopuru eta kalitatearen arabera.

6. Kalitatea eta kudea, bi hitzetan

Kalitatea hitza, ekoizpena, prozesua eta sistema inguruekin harremantzen da, kudea berriz askozaz ere zabalagoa da.

Ez dugu ukatuko, hezkuntzaren kalitateaz aritzerakoan, kalitate eta kudearen arteko bereizketa nahasia agertzen dela.

Hezkuntzaren kalitatea, bitarteko kudeaketa eraginkorrekin harremantzeko, herrialde ugari egin dituzten ikerketetan arrazoi eta baldintzatzaile berberak erabili dituzten arren, ez dira ondorio berberetara iritsi salbu batetan: gizar-teari boterea itzuli eta eskolan oinarrituriko kudea ereduaren beharra atzermaterakoan (Muñoz-Re-piso, 1995, 124-125).

Egun, adibidez enpresagintza arrakastatsua lortzeko, EFQM europear ereduak (Membrado, J., 1999) dioenez, goi-mailako kudea burutzeko, bi motako erizpide multzoak ezagutu eta kudeatzea esan nahi du:

- a) *Erizpide erreztatzaileak.*
 1. Lidergoa.
 2. Politika eta estrategia.
 3. Pertsonalgora.
 4. Bitartekoak.
 5. Prozesuen kalitatea.
- b) *Erizpide bideratzaileak.*
 6. Pertsonalgoraren ondoegotea
 7. Hartzailearen ondoegotea
 8. Gizar-tearengan deïadarra
 9. Ondorio globalak

Eredu honen xedea, bikaintasuna erakuntza osatzen duten guztiengan lortzea da eta bere ezarpenak, dionez, sistematikoki eta egituralki etengabeko hobekuntza dakar erakuntzaren barne, baina jokuan dagoena kudeaketaren kalitatea da.

Uste dugu, aipatu ereduaren erizpideak aztertu eta alderatzerakoan enpresa eta ikastetxea erakuntza ikuspegitik, honelako bereizketa bat egin daitekela: eskola errealitatetik hartuta, hutsune haundiagoa dagoela lehenengo multzoko erizpideetan bigarrenetan baino, eta alderantziz, enpresa-erakuntza baten kudeaketaren hobekuntza lortzeko gehiago landu beharko direla bigarren multzokoak lehenengokoak baino.

Dena den, bistan da, edozein erakuntzak aurre egin beharreko bi motako alderdiak direla hauek, eta grafikoki honelaxe adieraziko ditugu:

Enpresa-Bikaintazunerako Europear-Kudeaketa ereduaren erizpideak

<i>Erreztatzailak</i>	<i>Bideratzailak</i>
1. Lidergoa	6. Pertsonalgoaren ondoegotea
2. Politika eta estrategia	7. Hartzailearen ondoegotea
3. Pertsonalgoa	8. Gizartearengan deiarra
4. Bitartekoak	9. Ondorio globala
5. Prozesuen kalitatea	

<i>Hezkuntza-Erakuntzan</i>	<i>Enpresa-Erakuntzan</i>
• Erizpide erreztatzailak (-)	• Erizpide bideratzailak (-)
• Erizpide bideratzailak (+)	• Erizpide erreztatzailak (+)

Apalategi, M.J. (2001)

Bibliografía

- Allegre, Cl. (2000): *Vive l'école libre!*, Paris, Fayard.
- Apalategi, M.J. (2000): *a. Hezkuntza-Erakuntza I: oiñarri teorikoak*, Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Benedito, V. eta beste. (1995): *La formación universitaria a debate*, Barcelona, Universitat de Barcelona.
- Carrasco, J. (1996): *La Universidad, una institución de la Edad Media*, Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa. 1996-96 ikasurteko "Lección inaugural", 32 orri.
- Eusko Jaurlaritza (2001): *Diagnóstico del sistema universitario vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Serbitzu Zentrala.
- Gerstner Jr, L.V. (1996): *Reinventando la educación*, Barcelona, Paidós.
- Iztueta, P. (2001): *Liburu aipamena*, Bilbo, Uztaro.
- Membrado, J. (1999): *La gestión empresarial a través del modelo de excelencia*, Madrid, Club Gestión de Calidad.
- Muñoz-Repiso Izaguirre, M. eta beste. (1995): *Calidad de la educación y eficacia en la escuela. Estudio sobre gestión de recursos educativos*, Madrid, MEC-CIDE.
- O.C.D.E. (1990): *Schools and quality. An international report*. Paris.
- O.C.D.E.-CERI (1991): *Indicateurs internationaux de l'Éducation. Caractéristiques des établissements et des systèmes d'enseignement. Rapport du réseau C pour la phase 2*. Paris, O.C.D.E.
- Saratxaga, K. (2001): "Lider de la misión Irizar", *Zazpika: GARAREN aldizkaria*.
- Sèrieux, H. (1994): *El big bang de las organizaciones*, Barcelona, B, S.A.
- Sádaba, J. (2001): "¿Miedo a la clonación?", *Deia egukaria*, 01/8727-26or.
- Touraine, A. (2001): "Voces del milenio: Entrevista a Alain Touraine", *El Mundo*, 8-9, 30 eta 46 orr.
- UNESCO (2001): *Futuros objetivos precisos de los sistemas educativos*, Bruselas, 28 orr.

LABURPENA:

Hezkuntza-Erakuntza zientziaren ikuspegitik hartuta, gizartearen goi hezkuntza egituretatik hasi eta ikastetxeetarainoko bidean, hezkuntzari kalitatea eskatzeko orduan, garain-garaiko hezkuntza-profesionalek osatzen duten giza-multzoa da lehenik aintzakoz hartu behar den errealitatea, eta ondoren, kalitateari buruz duten nozioa.

Izan ere, azken baitan, gizarteek hezkuntza eta heziketari ematen dieten baliogarratasuna haien lanen ondorioz jasotzen den ekoizpenaren baitan egoten da, eta berau hiru mailatan atzeman daiteke: ideien garapena, ondasun kulturala eta serbitzuen eskaintza eta eskaeraren gehikuntzan.

ABSTRACT:

When society submits education to quality evaluation, scientifically and from the perspective of the Organisation of Education, initially, what should be defined is the notion education professionals have themselves of the concept of quality in education since, it is from them that will stem the value that society as a whole will attribute to education and professional development.

This social value of education is sought through measurable results attained from individuals as from groups, that fundamentally are perceived at three levels: development of ideas, cultural patrimony and the increase in supply and demand of services, a task which is performed by education professionals.

RESUMEN:

Cuando la sociedad somete a la educación a la evaluación de su calidad, desde el punto de vista científico de la Organización de la Educación, lo primero que debe hacerse es conocer la noción que sobre el concepto de calidad tienen los propios profesionales de la educación, ya que de ellos dependerá el valor que la sociedad, en su conjunto, atribuya a la educación y a la formación.

Este valor social también dependerá de los resultados, tanto individuales como colectivos, que se producen a través de la labor de los profesionales de la educación, y que se detectan, fundamentalmente, a tres niveles: desarrollo de ideas, patrimonio cultural y aumento en la oferta y demanda de los servicios.